

Juan Iturralde y Suit (1840-1909)

1. BIZITZA ETA GIZARTEA

Juan Iturraldek aktibitate aberats eta emankorra izan zuen bere bizitzan eta arlo ezberdinetan garatua, baina, aldi berean, ez zuen inoiz galdu norabidea, ipar magnetiko batek erakarri eta gidatu izan balu bezala bizitzan eman zuen urrats bakoitzean. Ez da erraza izanen hori azal dezaketen baldintzak zeintzuk izan daitezkeen jakitea, baina, agian, begirada batek, azalekoa izanik ere, zerbait lagun diezaguke.

Familia onekoa zen eta horrek gehiengoari baino aukera ugariagoak eskaini zizkion bai bere burua formatzeko bai eta Iruñetik atera eta garaiko hiri garrantzitsuetan ikasi eta bizitzeko ere. Iruñean jaio zen eta han hartu zituen gaztarora arteko ikasketak; ondoren, Bartzelonan hasi zuen ingeniariaritzaren karrera, baina osasun arazoak izan zituen eta Iruñera itzuli behar izan zuen. Ondorioz, Bordelen merkataritza ikasketak egin zituen. Horrela prestatua aurkitzen zen bere aitek irekitako ildotik abiatzeko, banketxe zuzendaria baitzen. Baina Juanek ez zuen laketa lan hori. Ikasle ona eta argia zen eta Bordelen nabarmendu egin zen bere mailagatik, baina ikasketak horiek ez zioten barnea asetzen ez eta egonezina baretzen ere. Alde batetik, arte plastikoetarako esku bikaina zuen nola marrazteko nola pintatzeko. Bestalde, idazteko ere erraztasun handia agertu zuen gaztarotik. Eta, dirudienez, giza jakintzaren mundua atseginago zuen zenbakiekin bizitza osoan jardutea baino. Horiek hala izanik, eta Bordelen egon zelarik, Paris hurbilago sentitu eta irrikatuko zuen. Horrela azaldu zien gurasoei Iruñera itzuli zenean eta haiek onartu zuten semearen borondatea, hobeki formatu zedin berak agertzen zuen bezala. Aberatsa gertatu zitzaion Pariseko egonaldia, bertan, XIX.eko bigarren erdialde horretan, arte munduko pinturarik hoberena egiten baitzen eta hango jende jakitsu eta ospetsuak ezagutu eta tratatzeko aukera izan baitzuen.

Paristik Iruñera itzuli zenean ongi jantzia zetorren jakinduriariz eta heldutasunez aurrerantzean izango zituen lan eta egitekoei behar bezala erantzun ahal izateko. Egia esan, Iturraldek arlo ezberdinetan garatu zuen bere egin-nahia, eta izan zuen prestaerak eta zituen dohain pertsonalek lagundu zioten bere ekinbi-

de anitzean. Baina, agian, horiek ez dute behar adina erakusten zerk eragiten zion funtsean eta zerk pizten zituen haren ahaleginak oro. Su eta adore horrek erro sakonagoak zituen, noski, formazioan sustraituak baino. Iturralde jaio zenean, 1840.ean, Nafarroa irakiten aurkitzen zen, eta egoerak oraino aunitzik mukurragora eginen zuen haren haurtzaro eta gaztaroan eta horien ondorengo urteetan. Gurasoen aldetik Euskal Herriaren iparraldean zuen jatorria. Aiton-amonetarik hiru Nafarroa Beherekoak, nafarrak, beraz, eta laugarrena xiberoarra, Barkoxekoa: laurak euskaldunak. Aurtzarotik ezagutu zuen Nafarroako Erresuma oinperatu eta zatituaren nafarren bihotzeko mina. Nafarroako eta beste euskal lurraldeetako foruen galera, eta bere herria zenaren ezaugarri nagusien jazarpena eta gainbehera bizi izan zituen. Ez da harritzekoa Nafarroa bihurtu bazitzaion bizitzako ardatz eta arantza, biak batera, eta Nafarroarekin Euskal Herria eta honi zegokion oro: historia, nortasuna, herri honen baloreak, kristautasuna; eta horiek denak elkarrekin mamitzen zituen eta horiei eusten zien sinbolo eta zutabe nagusia, euskara. Horra Iturralderen bizitza berotzen zuen sua. Berak Jainkoa, familia eta Nafarroa-Euskal Herria aipatzen zituen, baina ez euren artean bereizteko asmoz, bakoitzari zegokion begirunea eta itzala aditzera emateko baidik.

Iruñean hango aferetan sartzen hasi zen. Gizakume prestua eta begikoa zen Iturralde, eta kezkatia ere bai, gizarteko arazoez franko interesatzen zena. Beraz, gazte alaia izateari utzi gabe, berehala ikusiko dugu Iruñeko errespetuzko pertsona nagusiagoez ere harremanetan. 1868ko irailean Iruñeko udaleko zinegotzi izendatu zuten, eta handik hiru hilabetera hauteskundeetan kargu bererako hautatua izan zen. Udaleko zenbait batzorderen arduradun eta partaide izan zen eta lan ona egin zuen hainbat urtez.

Horrek ez zion eragotzi beste ekintza aunitzetan sartua ibiltzea eta bere zaletasunak lantzea. Nafarroak zituen arazoez eragiten zioten batik bat, esan bezala, eta 1868an aurkitzen dugu beste pertsona ezagun batzukin elkarteren bat sortzeko asmotan eta baita hegoaldeko beste euskal lurraldeekin harremanetan jartzeko ekintzetan ere. Gerra sortu zelarik, geroagorako utzi behar izan zituen bere asmoak, baina ez zuen etsi *Asociación Euskara de Navarra - Nafarroako Euskarazko Elkargoa* aipatua sortu arte. Horrekin batera sortu zen *Revista Euskara*, eta gero baita beste aldizkari batzuk ere, eta hainbat ekintza bultzatu zituen euskararen inguruan.

Laster ikusiko dugu baita Nafarroaren historia eta arkeologia lantzen eta aztertzen ere, *Nafarroako Monumentu Historiko-Artistikoen Batzordeko* idazkari agertzen baita 1868ko martxoan. Arlo horretan ere bizitza osoan jarraituko zuen, ekarpen garrantzitsuak eginez Erdi Aroko monumentuei eta historiaurrekoiei buruz eta Monumentuen Batzordean lan eskerga eginez urte aunitzetan. Entzute handiko pertsona bihurtu zen arlo honetan, eta *Arte Ederretako San Fernando* eta *Historiako Errege Akademietako* kide izan zen.

Marrazketa eta pintura ez zituen sekula utzi, horiek baitziren bere barne-jaidurarik tinkoenak. Arte-sen hori idazketan ere agertu zuen egunkari eta aldizkarietan, baina hizkuntzaren erabilera literarioak liluratzen zuen batez ere, eta



Campión lagun minari eskainitako argazkia.

horretan jardun zuen batik bat bizitzaren azken urteetara arte.

Azken hamabi urteak Barzelonan egin zituen, hara joan zelako semearen osasun arazoak eraginda. Ez zituen, hala ere, hemengo lanak baztertu, ez lagunekin harremanak eten, ez eta hona bidaiak utzi. Han hil zen 1909ko abuztuaren 17an, eta haren gorpua Iruñera ekarria izan zen eta Iruñeko Udal-Korporazioak jaso ondoren, hiletetan eta hilobiratu arte lagundu zuen. Azken harrera ofizial horrek agertzen du zein estima handiko pertsona izan zen Juan Iturralde eta zein barneratua zuen Iruñeko gizarteak haren irudi eta oroitzapen ona. Izan ere, Iturralderen grina Nafarroa izan zen, bere izate eta historian. bere euskaltasunean, bere lege eta ohidura zaharretan, Erdi Aroko nahiz Historiaurreko eraikin eta aztarnetan. Dena loturik ikusten zuen Nafarroaren nortasun paregabea. Hori bazekiten iruindarrek eta nafarrek ere.

Pertsona bezala hurbiletik ezagutu zuten denek jasotzen dute laudorio eta estimarik handienez. Campión lagun mina zuen eta haren goresmenak alde batera utziz, erretraturik erakargarriena utzi digute beste jakintsu eta idazle bikainek, hala nola Mañé y Flaquer-ek, Carmelo de Echegarayk edo Julio Altadillek¹. Aipatu diren dohainez gain, adimen argikoa eta jakinduria zabalekoa zen eta nekagaitza lanerako; hagitz atsegina traturako, aiurri onekoa, lagun laguna, familiaren maitale eta euslea eta Nafarroako eta Euskal Herriko semerik zintzoen eta kartsuena. Altadillek, pertsonaren alderdi biak hartuz, zioen bezala, "Aingeruzko arima eta noble-irudia zituen Iturraldek"².

1. (1878, 1. alea), (1916, 3. alea, 1.) eta (1915, V. alea), jarraiberean.

2. Altadill (1915, 1.000). "Iturralde poseía alma de ángel y figura de noble"; euskarazko itzulpe-
na gurea.

2. NAFARROA ETA EUSKAL HERRIA BIHOTZEAN

Zirkunstantziak egiten omen dituzte pertsonak, eta Iturralderen bizitza eta lana ere garaiak baldintzatu zituen dudarik gabe. 'Nafarroako Lege Paktatua' ize- nez ezaguna den legea 1841ean jarri zen indarrean. Lege horrek deuseztatu zituen Nafarroaren Erresuma eta Erresuma bezala zituen eskubideak eta ahalmenak: Gorteak, Errege Kontseilua, aduana, diru-txanpona egitekoa, legegintza eta epailetzakoak; eta, horiez gain, 1.800.000 errealetako zerga edo ekarpena ezarri zion eta soldadutza betetzera behartu zuen. Hitz batez esanda, Erresuma ezabatu eta probintzia bihurtu. Gelditu zitzaizkion gobernu-eginkizun batzuk, baina handik ala hemendik zerbait ahal bazen inausi, beti zegoen Espainiako gober- nua edozein zirrikitu probexteko adi. Eta, zer esanik ez, arrangura eta sumina hedatuz joan ziren Nafarroa osoan. Nafarroan ez ezik, hegoaldeko beste hiru euskal lurraldeetan ere zabaldu zen. 1839ko legeak berdin zegokien Nafarroari eta beste hiru lurraldeei, haren helburua lurralde horietako foruak Espainiako batasun konstituzionalean egokitzea baitzen.

Ezin daiteke esan hegoaldeko lau lurraldeen batasunaren zentzua halako edo bestelako datetan hasi zenik. Euskal Herria bazenaren sentimendu hori berezkoa zen, naturala esan nahi baita, hartaratu beharrik ez zuena, eta Euskal Herria bere osoan hartuz, noski. Baina sentipen hori hemeretzigarren gizaldian kontzientziatu zen batez ere herritarren baitan, herrian, arrunki esanda; herri honi bere ezaugarri eta berezitasunak ukatzen hasi zirenean, alegia. 1866an Nafarroako Diputazioak garbi agertu zuen beste hiru Diputazioekin harremanak indartzeko asmoa. Urte horretako ekainean aurkeztu zien aurreneko proiektua Euskal-Nafar Unibertsitatea sortzearena izan zen³. Eta horren eta beste propo- samen batzuen aurrean, jarrera ona hartu zuten hiru Diputazioek. Nafarroan ber- tan ere zenbait herri eta jende aunitz Diputazioen arteko egitasmo horien alde agertu ziren⁴. Ikusten da, beraz, euskal gizartea ohartzan ari zela elkarren arte- ko batasunaz eta bide horretan urratsak ematen hasteko garaiaz. Erakundeen arteko harremanak moztuak gelditu ziren 1868ko iraileko iraultzaren ondoren.

Bilakabide horren eta herri-ekimenaren lekuko apartetzat har daiteke Iturral- deren pertsona. Ez bakarria zelako, baizik berak bezala pentsatzen zuten zenbait lagun bere inguruan biltzen eta mugitzen jakin zuelako. Erakunde ofizialek nola- bait martxan jarri nahi izan zutena, berak gizartera eraman eta gizartean erro- tzea lortu zuen. Esan bezala, 1868. urtean elkarte bat sortu nahi izan zuen eus- kara eta euskal kultura bultzatzeko helburuaz eta beste hiru lurraldeetako kide- ekin harremanak izateko asmoz⁵. Elkarte horren lehenbiziko kimua Pablo Ilarregi


3. Ikus: M^e Sagrario Martínez Beloqui (1984) eta Florencio Idoate (1971).

4. 1867an, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako diputazioei idatzi bat bidali zien Zabalza Diputatu Nagusiak, zeinetan azpimarratzen zen: "El origen, el idioma, la historia, la tradición, hasta su régimen administrativo hace de las Provincias Vascongadas y Navarra, no sólo provincias hermanas sino provincias gemelas [...]. Los intereses morales y económicos de las provincias Vascongadas y Navarra, dentro de las respectivas condiciones forales, pueden desarrollarse ampliamente a favor de una unión patriótica", Martínez Beloqui (1984, 465).

5. Campión (1912, LX or.) eta Jimeno Jurío (1985, 224-225.or.).

Iruñeko Udaleko idazkari zen historialariak, Nicasio Landa sendagile ospetsuak, Esteban Obanos apaiz kultu eta ezagunak eta Iturralde berak osaturikoa izan zen. Ezin daiteke esan deigarri gertatzen ez denik hain gizakume gazteak zuen eragina. Berarekin elkartu zituen entzutetsuak eta bera baino hagitzik adintsuagoak ziren pertsonak. Bestalde, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako intelektualekin jarri ziren harremanetan eta erlazioak usutzen ari zirelarik, aitzina egiterik ez zuten izan, 1872. urtean bigarren karlistada hasi baitzen. Gerra horrek eragin gaitza izan zuen lau lurraldeetan, eta amaieran, 1876an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari euren Foruak kendu zizkieten.

Madrileko Gobernuak nafar eta euskal foruen aurkako aldarrikapen eta kanpaina bortitzak bultzatzen zituen, azpizokoz, euskal lurraldeen inguruetakako probintziak zirikatuz eta egunkariak baliatuz. Campi3n artean gaztea zen, hogeita bi urte betetzeko, Nafarroako foruei buruzko lana, *Consideraciones acerca de la cuesti3n foral y los carlistas en Navarra*, 1876ko otsailean argitaratu zenean. Hortik eta *La Paz* egunkarian argitaratu zituen artikuluetatik etorri zen Iturralde eta Campi3nen arteko ezagutza hurbilagokoa; adiskidantza mina bilakatuko zena berehala, adinean alde handiskoa zuten arren, eta bizitasun handienaz iraungo ziona Campi3ni Juanen heriotzaz gaindi. Foruen galerarekin, hauek euskal lurraldeen errebindikazio guztien ikur bihurtu ziren eta horien alde, era ezberdinean bazen ere, lagun biek idatziko zuten egunkaritan.



Nafarroako Monumentuen Batzordeko Boletina.

3. ASOCIACI3N EUSKARA DE NAVARRA - NAFARROAKO EUSKARAZKO ELKARGOIA

Iturralderen ekintzarik entzutetsuena *Nafarroako Euskarazko Elkargoia* sortzea izan zen. Gerra amaitu ondoren, berriro hartu zuen, kasu honetan Campi3nen eragina tartean zelarik, aintzinako asmo hura aberastua. 1877ko urriaren 23an, hamahiru lagun, bera barne, bildu ziren bere etxean. Aspaldiko ekintza hartako Nikolas Landa eta Esteban Obanos, Ilarregi izan ezik, arestian hila baitzen, eta beste zenbait, hala nola Hermilio Oloriz, Florencio Ansoleaga, Guirioreko Markes jauna, Arturo Campi3n edo Joaqu3n Herr3n. Ondorengo egunetan beste bilera batzuk egin ziren, zeintzutan lagun gehiagok parte hartu zuten. Ez litzateke oso egoki hauek sortzaile taldetik kanpo uztea. Hirugarren batzarrean eratu zen zuzendaritza batzordea, non agertzen baitira, esaterako, Estanislao Aranzadi edo Salvador Echaide, eta bilera honetan eman zitzaion elkarteari behin betiko izena: *Asociaci3n Euskara de Navarra*⁶. 1878ko urtarrilaren seian

6. *Revista Euskara* (1996: XVIII. or. eta hur.).



Iturraldek diseinatutako *Euskarazko Elkargoaren* domina.

aurkeztu zen gizartean bere zuzendaritza-batzordearekin batera, Esteban Obanos lehendakari eta Juan Iturralde idazkari zituelarik. Horrela zioten: "El objeto de esta Sociedad es conservar y propagar la lengua, literatura é historia vasco-navarras, estudiar su legislación y procurar cuanto tienda al bienestar moral y material del país"⁷. Urtebetean 371 bazkidek osatzen zuten Elkargoa, ohorezko zenbait kide aipagarri ere zituelarik: Sagarmínaga, Moraza, Manterola, Navarro Villoslada, Iparagirre, Becerro de Bengoa, Bonaparte Printzea, Vinson, besteak beste.

Garai hartan sartua zegoen kultura eta politikako jendeen artean aldizkari eta egunkariaren beharrarena nahiz ideiak eta ideologiak zabaltzeko, nahiz edozein kanpaina antolatzeko, nahiz jarraitzaileak erakartzeko. Elkargoak ere bide horri ekin zion berehala, eta bizpahiru hilabetetan aldizkari bat sortu zuen, *Revista Euskara*, arrakasta handia izango zuena. Iturralde bera izan zen, segurki, aldizkariaren abiarazlea ere, besteen laguntzarekin noski. Campiónengan horretarako lagun aparta zuen, bien artean eutsi zioten aldizkari honi. Beste zenbait egunkari eta aldizkari ere sortu zituzten: *El Argá* egunkaria eta, honen ondoren, *Lau-Buru*, hauen zuzendaria Campión izan zelarik, eta, azkenik, *El Aralar*. Aldiz-

7. Euskarazko testua, gaztelaniazkoaren itzulpen bezala aurkeztua, ez da lerroz lerro gaztelaniazkora lotzen, baina ongi jasotzen du aipatu diren helburuen azalpena: "Euskarazko Elkargoaren asmoak diré, gordetzea, galtzera utzi gabe, ta edatzea aldaitequen gucian euskarazko mintzaríoa; ongui ezagutzea gure aurrecoac itzcunza eder onequin erran eta eguin dituzten on guztiaic; alic eta onguiena icastea nola dembora gucietan bere lege jakintsuekin [...]; eta azquenean Euscal-errien onac aleguin guztiaic obeagotzea", *Revista Euskara*, 1. alea, (1996, 3-7. or.).

karietan, aipagarriak dira *La Ilustración de Navarra*, hamaboskaria, eta *Revista del Antiguo Reino de Navarra*, hau ere Campiónek zuzendua.

Elkargo honi zor zaio *Zazpiak bat* lemaren sorrera. Euskalerraren Adiskideen Elkarteak, XVIII. mendean, "Irurac bat" hartu zuen lema bezala. Ikusi dugu XIX.aren erditik aitzin hegoaldeko lau lurraldeek, oharturik bat egiten zutela hizkuntzan, izatean, historian eta etorkizunak agertzen ziren bilakabidean, elkarrekin harremanetan hasiak ziren. Horrek zekarkeen batasunari izena emateko ez zegoen deus asmatzen aritu beharrik, aurrekoa egokitzea aski zen: "Laurak bat". Eta arin zabaldu zen, Uruguay eta Argentinako euskal etxeei izen hori eman baitzieten handik urte gutxira. Halere, biak murriztuz gelditzen zitzaizkien Elkargoko kideei. Iturralderi, jatorria Euskal Herriko iparraldean zuenez, ez zitzaion zail gertatuko ikusmolde horretara iristea eta lagunak horretara erakartzea ere. Iturraldeak berak diseinatu zuen Elkargoaren zigilua: domina borobilean, zazpi mendiren gainean Gernikako Arbola, honen enborrean Nafarroako armarrria bere kororekin eta arbola gainean gurutzea; ertz-inguru osoan Elkargoaren lema: *Jaungoikoa eta Fueroak, Dios y Fueros*⁸. Edonola ere, ez ziren gauza guztiz berriak, garai honetan beste esanahi eta indar bat hartzen bazuten ere. Axularrek banan-banan eta inolako garrantzirik eman gabe aipatzen ditu zazpi lurraldeak⁹, eta berdin d'Abbadie eta Chahok euren gramatikan eta honek aurretik daraman d'Abbadieren *Prolegomènes* luzean: "Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner"¹⁰. Bestalde, lautik zazpira egin zen jauziak, esanguratsua izanik ere, euskaldunentzat ez zuen deus harrigarrik.

Iturraldeak es zuen bereizketa garbirik egiten Nafarroaren eta Euskal Herriaren artean. Elkargoan eta haren argitalpenetako lanetan ere ez zen, oro har, bi kontzeptu horien artean kontrajarpenik ez bereizketa espresik agertzen. Nafarroako gaietan eta aferetan zentratuak aritzen ziren Elkargoko kideak, noski, baina hori erabat arrazoizkoa zen eta, garaian jarriz gero, ezinbestekoa ere bai. Kasu honetan zerbaitek inolako esanahirik izatekotan, gabeziak izango luke balioa, Nafarroaren euskalerritasunaz galdetu beharrik ez izateak, alegia; bestela esanda, Euskal Herria zela naturaltasunez barneratua izateak.

Elkargoa guztiz irekia zen edonorentzat eta ez zuen inor baztertzen ideologia edo beste edozein arrazoiengatik. Esan bezala, herriaren eta Nafarroaren onerako lana egitea zen kontua, baina pertsonen hitzek eta ekintzek, nahi gabe ere,

8. "Ella (*Asociación Euskara de Nabarra*), modernamente, fué la primera que proclamó el dogma de la fraternidad euskariana, substituyendo el raquíico *Irurak-Bat*, no con el incompleto *Laurak-Bat*, sino con el lema definitivo de *Zazpiyak-Bat*", Arturo Campión (1912, LXIV). 15 urte geroago, 1893an, Azpeitiko Lore Jokoetan Zaldubik aurkeztu zituen bertsoetan agertzen da esaldi bera. Hona emen errepika eta lehen bi ahapaldiak, gure artean ezagunak direnak: *Gauden gu eskualdun*: (Errepika) "Zazpi Eskualherriek/ bat egin dezagun - Guziak bethi, bethi, / gauden gu Eskualdun". 1 "Agur eta ohore / Eskualherriari: - Lapurdi, Basa-Nabar, / Zibero gainari; - Bizkai, Nabar, Gipuzko, / eta Alabari. - Zazpiak bat besarka / lot beitez elgarri." 2 "Haritz eder bat bada / gure mendietan, - Zazpi adarrez dena / zabaltzen airetan, Frantzian, Spainian / bi alderdietan: - Hemen hiru'ta han lau, / bat da zazpietan." G. Adema (1909, 396).

9. Axular (1643, 17).

10. Agustin Chaho (1836).

beti erakusten dute haien pentsatzeko era. Hortik, eta asmo makurrez, eman zieten *éuskaros* izena. Elkargokoei ez zitzairen desatsegin gertatu ordea, eta 1881. urtean izen horrekin aurkeztu ziren udal hauteskundeetan Iruñean, eta 'Jaungoikoa eta Foruak' lemapean alkatetza lortu zuten. Berdin 1883an. Beste alderdiak kezkatzen hasi ziren, eta Madrildik ere kanpaina gogorrak bultzatu zituzten, Elkargoaren izen ona laidoztatu bidenabar hango kideak bortxatzeko xedez. Horren eraginez edo, Elkargoa ahulduz joan zen, hala ere, 1897ra arte iraun zuen: hogeitau urte denera. Berez desagertu zen, baina ez guztiz, egin zituen lanak ez ziren galdu, eta hedatu zituen ideiek eta izan zituen harremanek hamaika fruitu eman zituzten bai Nafarroan bai beste euskal lurraldeetan. Gogora ditzagun Campiónen hitz hauek, estimagarriak eta, bere laburrean, esanguratsuak, Elkargoak utzi zuen aztarna bere osotasunean hartzen ez badute ere:

Mas si el espíritu, tosco y estéril, de los partidos realizó su labor negativa, las ideas capitales de la *Asociación Euskara* de Navarra continuaron actuando en el espíritu euskariano hasta asumir la autoridad de cosa juzgada. Los certámenes de poesía é historia euskaras, el cultivo de la lengua y música baskas, la publicación de revistas como la *Euskal-Erria*, *Revista de las Provincias Euskaras*, *Revista de Vizcaya*, *Euzkadi*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *La Basconia* y otras; la formación de sociedades patrióticas, como *Eskual-zaleen Bilzarra*, *Euskal Esnalea*, centros baskos, batzokis, en España, Francia y América, poseen un precedente escrito por aquella insigne asociación, aunque se comete la frecuente injusticia de ignorarlo ú ocultarlo¹¹.

4. EUSKARAREN ERAGILE

Elkargoak euskara ezarri zuen zutabe bezala, ez "euskara" hitza sartu zelako izenean, edo ez horregatik bakarrik –kasu horretan adjektibo bezala erabiltzen baita–, euskara zutelako euskalduntasunaren ardatz eta aurreneko helburu, eta gainerako helburuak horren gerizpean eratzen zirelako baizik. Juan Iturraldek berak agian ez zuen menderatzen euskara; nolana ere, ez berak beharrezko iritziko zion mailan behinik behin. Atsegin zuen euskal hitzak bere lanetan sartztea, eta estali-ezineko harrotasunez agertzen ditu euskal pertsonaiak idatzietan. Antonio Arzakek euskara badakienari bezala zuzentzen dio olerkitxo bat, eta bide batez jakiten dugu Hernani bezalako herri euskaldun petoan igarotzen zuela Iturraldek udaldia:

Zer naizu esatea, adiskidea, / Donostiatik? / ¿Zer Ernantik, zurea izaten dan / Uda-kabitik? [...] / Orain, lagun maitea, ¿zuk zer diozu / Nafar aldetik? / Esan zadazu anaiak geradela / ¡Bai! ... ¡Biotzetik!¹².

Nafarroaren euskalduntasunaz ez zuen zalantza txikienik ere. Eta euskaldunen izate osoa euskararen iraupenarekin eta indartzearekin lotzen zuen. Elkargoaren hitzek, programa aurkeztean, Iturralderen pentsamendua islatzen dute eta berak idatziak izango dira segurki, bere idazkietan ere berdintsu azaltzen baita:

11. A. Campión (1912, LXIII-LXIV).

12. *Revista Euskara*, V. alea, (1996, 288).



Juan Iturralde y Suit

Si el pueblo euskaro [...] ha podido conservar su personalidad, y se ha mantenido con su genuino carácter y sus varoniles virtudes a través de los siglos, es indudablemente porque supo guardar, como en depósito sagrado, esa antiquísima lengua vascongada [...]. A impedir que desaparezca tan admirable idioma, y a propagarlo, si posible fuese, se dedicará con empeño la Asociación¹³.

Bere aldetik saiatzen zen euskararen aldeko zen orori eusten. Lehenbizi, *Revista Euskara*-n euskararen presentzia ziurtatzen zuen. Laguntzaile onak ere izan zituen, A. Campi3n batez ere; Claudio Otaeguik lan aunitz bidali zituen eta beste zenbaiten lanak ere itzuli zituen. Horiez gain, Jose Manterola, J. M. Iribarren, M. Mendigacha, Felipe Arrese Beitia, Vicente Arana, A. Arzak, Iparragirre bera, Antonio de Trueba ere aritzen zen euskarazko testuekin, eta noizbehinkako hainbat laguntzaile. Euskal jai eta bestetako lehiaketetan saritutako lanek hagitz eskuar gertatzen zitzaizkion. Elkargoak prestatu zituen d'Abbadierekin batera Elizondoko Euskal Jaiak, 1879ko uztailleko Santiagoko bestetan. Eta Iturralde berak atera zuen aurrera Iruñean 1882ko San Ferminetarako gaztele-razko eta euskarazko lanen literatur lehiaketa. Ospe handiko lehiaketa izan zen, eta sariak banatzekoan Santa Cecilia Kontzertu Elkarteak eta Iruñeko orfeoia hartu zuten parte, eta Sarasate eta Gayarrek ere agindu zuten euren partaidetza, gero Sarasate besterik egon ez bazen ere.

Iturralderen euskararekiko atxikimenduaz, deigarriena da nola asaldatzen zen eskoletan gertatzen ziren euskararen aurkako jokabideekin eta zein ausarki salatzen zituen euskaraz egiteko debekuak eta egitearren haurrei ezartzen zitzaizkien zigorrak. Euskararen irakaskuntza eskoletan sartzeko ahaleginak ere egin zituen. Eta Elizondoko Euskal Jaietan ere, Elkargoko kideren batzuek emanik, 100 pezetako saria jarri zuten: "euskal-mintzoaren onean berzec ba3o gehiago egin duen escola-Maisuari"¹⁴. Atentziora deitzen du ez zela Elkargoa izan saria ipini zuena, hango kideren batzuek baizik, eta horrela adierazi zela programan. Horren atzean Iturralde eta Campi3n egonen ziren segurki. Bestalde, saria ez zen Nafarroako maisuei soilik zuzendua, Euskal Herriko guziei baizik¹⁵. Bistan da horren xedea: eredu jarraigarrri izatea eta ardura bera Euskal Herri osoan zabaltzea. Euskararen katedra bat ere sortu nahi izan zuten Elkargotik, eta Madrileko ministerio batera ere euskararen erabilera indartzeko laguntza eskakizuna bidali zuten. Berrir Campi3nen lekukotza baliatuko dugu, adierazgarria baita:

Iturralde trazaba el programa de los trabajos: traducciones al euskara de las mejores producciones literarias del pa3s; formaci3n de un *cancionero*; conservaci3n y cultura de la m3sica basca, de suerte que los celebrados *maestros* nacidos en estas mont3as "conserven y extiendan las dulces melod3as vascongadas, esos acentos de

13. *Revista Euskara*, 1. alea, (1996, 3-4).


14. Gazteleraz: "4º. Premio de 100 pesetas al maestro de escuela que m3s haya hecho en pr3 de la lengua vascongada contribuyendo 3 su sostenimiento, dado por varios Asociados". "Elizondoco bestac. Fiestas euskaras de Elizondo". *Revista Euskara*, 2. alea, (1996, 156).

15. "Aristian erranico sarira autamendua badutela uste duten Euskal-errico Maisuec", *Revista Euskara*, 2. alea, (1996, 154).

las brisas pirenaicas, antes de que se pierdan, arrebatados por las insanas brisas del Mediodía”; celebración de certámenes literarios y juegos característicos¹⁶.

5. REVISTA EUSKARA

Goian aipatu den *Revista Euskara* Elkargoak zituen helburuak erdiesteko tresna bezala sortu zen (1878). Aurreneko zenbakitik agertzen ditu bere ezaugarriak: aldizkari generalista, bai, baina euskal hizkuntza eta kulturari zuzendua. Gaiak euskal mundura mugatzen dira batik bat, edo guztiz. Normalizat har daitekeen bezala, Nafarroakoak dira ugariagoak, baina badira beste lurraldeetariokoak. Edukiari dagokionez, literatur sorkuntza, euskaraz gehienbat; euskal testuak euskalki denetan; euskal hizkuntzari buruzko ikerketa-lanak, baita zientzia gaietakoak ere inoiz. Horiez gain, dokumentazio historiko garrantzitsuen edizioa; Elkargoaren barne-informazioa eta bestekin zituen harremanena; baita Euskal Herriko kulturarekin zerikusirik izan zezaketen gertakizunena ere ematen zuen. Kolaboratzaileak ere Euskal Herriko lurralde guztietakoak ziren, eta Euskal Herritik kanpoko zenbait ere bai. Esaterako, lehenengo urteko aurkibidean ikusten denez, euskarazko testu literarioak gipuzkeraz, zubereraz, behenafarreraz eta goinafarreraz ageri dira, eta beste aunitz euskalkiaren aipamenik egín gabe. Zientzia eta ikerketen aldetik, “*Crania euskara*, por el Dr. Landa”; “*Primeros tiempos de la Monarquía Navarra*, por don Ramón Ortiz de Zárate”, “*De la antigua Vasconia y sus límites*, por D. Esteban Obános”. Baita “*Documentos históricos*, copiados de los Archivos provinciales, por D. H. Oloriz” ere. Eta, esan bezala, elkarteko eta gainerako informazioa. Testuen egileei dagokionez, berriz, irekiera handia ageri da hasieratik: Elkargoko kide ezagunenez gain, Ricardo Becerro de Bengoa, Mariano Mendigacha, Mr. Cerquand, José Manterola, J. Duvoisin, Manuel Gorostidi, Augustin Chaho, Vicente Arana eta abar. Eta zerrenda hori zabaldu egiten da hurrengo urteetan: Elissanburu, Ramon Artola, Antonio Trueba, Serafin Baroja, Delmas; Bonaparteren zenbait lan ere argitaratu ziren. Hizkuntzei dagokionez, gaztelania da nagusi, euskara ere aski ongi agertzen da eta frantsesez ere lanen batzuk badira.



Euskarazko Elkargoak sortutako aldizkaria.

16. A. Campión (1912, LXI).

Xehetasun horiekin azaldu nahi litzateke *Revista Euskarak* zedarrri gogoangarria ezarri zuela euskal argitalpenen historian. Lehenengoa izan zen horrelako helburu, eduki eta Euskal Herri osoko kolaboratzaileekin atera zen aldizkaria. Baina batez ere azpimarra daitekeena da garbi agertzen zuela aldiroko euskal argitalpenetan ere beharrezko zela maila duin eta aurkezgarria. Lortu zuenetz eztabaidatu ahal izanen da, baina ezin ukatuko da bide bat ireki zuela, bide berritzailea eta gero beste batzuek jarraituko zutena. Ikusi dugu Campiónek *RIE* Ven aitzindari bezala ere hartzen zuela. Bakoitzaren maila errespetatuz, baina aldi berean bakoitzari berea emanez, esan daiteke ez zegoela hain gaizki ekarria erreferentzia hori. Bataren eta bestearen ezaugarriek izan zuten antzik nahiz asmoan, nahiz edukietan, nahiz kolaboratzaileen aniztasunean, nahiz hizkuntzetan. Kalitatea eta maila ez ziren berdinak izan, noski, eta hori eskertu behar zaio Julio Urquijori, baina hogeita hamar urte daude bien artean, zientziaren bilakabidean garrantzitsuak oso izan zirenak, eta ezin izango zaio *Revista Euskarari* aitzindari eta eragile izatearen meritua ukatu.

Ez zen, halere, gauza erraza aldizkariari eustea, batez ere kolaboratzaileen eta haien lanen finkotasun gabeziagatik. Beti eman zuen lan handia alderdi horretatik, eta, kolaborazioak urritu ahala, Iturralde, zuzendaria zenez, eta Campiónek, erredaktore bezala, gero eta partaidetza handiagoa hartu behar izan zuten, batez ere azken bi urteetan. 1883ko azaroaren 30ean utzi zuten euren erantzukizuna Elkargoko lehendakariaren eskuetan:


Esta decepción, aminorada en gran parte por el aprecio, los inmerecidos elogios y el concurso que nos han dispensado personas tan eminentes como el Príncipe Bonaparte, el P. Fita, d'Abbadie, Trueba, Duvoisin y otros, ha sido causa de que pesase sobre nosotros exclusivamente la difícil tarea de sostener el interés de la *Revista*, dentro del círculo que por su índole puede girar, y este es también el motivo principal de que renunciemos nuestros cargos, deseando que las personas que nos sustituyan den nuevo impulso á la publicación y acrecienten su importancia. [...]. Lo que antecede no significa, en manera alguna, que nos separemos de esta *Revista*, la más antigua en su clase del país Vasco-navarro...¹⁷.

Azken zenbakia urte horretako abendukoa izango zen. Utzi egin behar izan zen, tamalez, baina bost urteko bitarte horretan beste lurraldeetan ere hasiak ziren tokian tokiko aldizkariak sortzen, eta horixe izan zen, agian, *Revista Euskararen* emaitzetan hoberenetarikoa bat: ez zela guztiz hil, hazia erein baitzuen naroki euskal lurraldeetan.

6. ARKEOLOGOA

Iturralderen pertsonalitatea aberatsa zen eta anitza, esparru ezberdinetan aritzeko gai zena eta maila jasoan gainera. Arkeologoa, idazlea, pintorea, ekimen handikoa... Batek ez daki zein alderdiri eman lehenetasuna. Baina ziur esan daiteke haren ekimen nekagaitza Nafarroari zion maitasun handiak eragiten zuela, zernahi egiten zuelarik ere dena sentipen horrek blaitzen baitzuen.

17. *Revista Euskara*, VI. alea, (1996, 319-320).



Iturralde egindako Zubeintako trikuharriaren deskribapen marraztua.

Hala ere, lehentasuna bati ematekotan, Nafarroaren nortasun eta historiarekin zerikusirik duen zernahiri eman beharko litzaioke. Azken buruan bat diren bi alderdi horiek kezkatzen zuten Iturralde, eta horregatik izango zen arkeologia munduak erakartzen zuela bizkorren eta esparru horri ematen ziola lehentasuna, besteak zaletasuntzat edo edukiz. Nafarroan monumentuen hondamenaren ardura hagitz zabaldua zegoen gizarte kultuan, batez ere Erresuma bera mende horretan jasaten ari zen jazarpen eta kalte handien erakusgarri eta lekuko bezala hartzen baitzen. Desamortizazioek ere hainbeste komentu eta monasterio aipagarri hustu zituzten bizilagunetarik, ondorioz eraikuntza monumental aunitz axolagabetasunaren hondakin bihurtuz eta egoitza horietako ondasun historikoak harrapakariaren eta espekulatuzaileen menean utziz.

Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordea 1844an sortu zen, Madrileko Gobernuak argitaraturiko Agindu baten araura, Espainiako probintzietan eratu ziren gainerakoak bezala. Hastapenetan ez zuten indar handirik izan, ez baitzitzairen baliabide gehiegirik esleitu. Denborarekin, Madrileko Batzordea desagertu egin zen eta horren kompetentziak "Arte Ederretako San Fernando Errege Akademia"ra pasatu ziren 1857an, "Moyano Legea" izenaz ezaguna denarekin. Azkenik, 1865eko azaroaren 24an araudi berri bat eman zen Batzorde Probintzialen antolaketarako, non agintzen zen batzordeko kide izateko,

ezinbestez behar zela “Arte Ederren San Fernando Akademia”ko edo “Historia Errege Akademia”ko kide izatea.

Zehaztasun horiekin kokatua gelditzen da, hein batean, Iturralderen arkeologia-lana bere testuinguruan. 1865eko abenduaren 25ean “Nafarroako Monumentuen Batzorde”ko zuzendaritza eta kidegoa eratu ziren araudi berriaren arabera. Agian horrek eraginda, ia berehala, 1866ko urtarrilaren 29an, Iturralde “San Fernando Errege Akademia”ko urgazle hautatua izan zen. Pentsatu behar da ez zela asko atzeratuko Nafarroako Batzordeko haren kidetza ere. 1868an, bileren aktetan ageri denez, Batzordeko idazkari zen¹⁸.


Nondik zetorkiokeen Iturralderi arkeologia eta historiarako zuen zaletasun hori? Parisen egin zuen egonaldia erabakigarria izan zen, noski. Aspaldiko lekuko kulturalak berreskuratzearen garrantzia biziki indartu zen XIX. mendean zehar Europan, batez ere erromantizismoaren eraginez. Nolabait ere, Paris zen Europako kultur mugiden katalizatzailea neurri handi batean. Han hurrupatuko zuen Iturraldek Erromantizismoak erakarri zuen Erdi Aroaren estimu berria eta garai hartako monumentu, dokumentu eta aho-literaturako edozein emaitza berreskuratzeke zaletasuna eta, oro har, historia aurreko eta historiako arkeologiaren grina. Horri gaineratu behar zaio XIX. mendearen erdi aldera hasi zela aurreko garaietako ondasun horien birbaloratzea herrien eta nazioen historia eta nortasunaren testigantza adierazgarrien bezala. Iturraldek eta Nafarroako jakintsuek ez zuten besterik behar, Nafarroako Erresumari gertaturikoen ondoren, lekuko historiko horien errekupekatze lanetan gogatsu hasteko. Esanguratsua da Erriberriko Gazteluaz Batzordearen Boletineko lehen zenbakian agertzen dena. Egia da dokumentu hori mendearen amaierakoa dela, Gazteluan aurkitu ziren dokumentu batzuen ondorioz idatzia, baina testua bera Iturraldek 1870ean argitaratu zuen lanaren isla eta oihartzun baizik ez da, eta, idatzi ere, ziurrenez berak idatzia:

Un hecho que representa una gran vergüenza para Navarra, se verifica actualmente en este país, en medio de la indiferencia general más triste aún que el hecho mismo; la destrucción del *Castillo Real de Olite*.

El hallazgo de algunos documentos, ocurrido estos días entre aquellos muros que se derrumban, parece ser la voz dolorida de la patria, que por última vez nos recuerda lo que aquello representa para nuestra desganada tierra, porque, en efecto, aquel grandioso monumento es el único Alcazar de nuestros Reyes que, aunque mutilado y en ruinas, subsiste todavía, y él es también, con los recuerdos de sus esplendores (sic) pasados y la manifestación de sus miserias presentes, la más genuina representación de nuestro Antiguo Reino¹⁹.

18. “Memoria presentada en la sesión de 5 de marzo de 1868 que celebra la comisión de Monumentos Histórico-Artísticos de Navarra sobre el hallazgo de 2000 monedas romanas en la ciudad de Sangüesa. ‘En la ciudad de Pamplona a cinco de marzo, de mil ochocientos sesenta y ocho, reunidos en sesión ordinaria bajo la presidencia de D. Pablo Ilarregui, los señores D. Esteban Obanos, D. Ignacio Landa, D. Maximiano Hijón, D. Atanasio Salazar, D. Agustín Ladour, y yo el infrascrito (sic) secretario [...]’. Firmado, Pablo Ilarregui, Juan Iturralde y Suit.”: Labeaga Mendiola, Juan Cruz (1984, 243).

19. “Castillo real de Olite”, “Principales acuerdos y comunicaciones de la Comisión, correspondientes á los meses de Diciembre de 1894 y Enero corriente” atalean, *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra* 1. alea (1885, 8).



Erriberriko Errege-Jauregiari buruzko xehetasunak.

Adierazgarria da, baita ere, R. Gazteluk batzordeari aurkezten dion informea Nafarroako azken erregeen hondakinen trasladoaz Lescar-etik Iruñera. Dena osorik da interesgarria, baina honako paragrafotxo hau baino ez dugu ekarriko:

*Día grande en verdad, día glorioso será para Navarra aquel en que veamos rendir honores regios en Pamplona, inclinarse las banderas españolas y presentar las armas de Castilla a los Reyes despojados y proscritos por Fernando el Católico*²⁰.

Desamortizazioek, Espainiako gerrek eta Nafarroan bertan gertatu zirenek kalte ikaragarriak eragin zituzten Nafarroako edozein motatako ondasunetan. Batzordeak, lehen urteetan, ez zuen aukera aunitzik izan ganorako lanik egin ahal izateko²¹, baina 1866. urtetik aurrera gero eta ekintzaileago ibili zen. Eta Iturralde partaidetza bizia izan zuen Monumentuen Batzordearen aktibitatean bere idazkari karguak eskatzen zuen bezala eta, bereziki, bere aiurriaren eta barneko sentipenen eraginez.

Iturralderen lehenbiziko lan nagusia eta izen handia eman ziona Erriberriko Errege Jauregiak egin zuen lana da²². Izan ere, hondamen handira iritsia zen gaztelua, Nafarroako erregeen egoitza famatua eta handiosa izan zena Erdi Aroan. Baziren aurretik ere idatziak testuren batzuk Erriberritik pasatako bidaiarienak, baina Iturralderi gaztelu hura hain hondatua ikusteak bihotza hunkitu eta astindu zion. Haren eraiaketak Nafarroako Erresumaren eta historiaren aldirik nabarmenetakoaren gainbehera biziki irudikatzen zion:

Sus truncadas torres, sus cuarteados muros, sus mutiladas ojivas [...] parecen hoy la tumba de un reino. A la algazara y animación ha sucedido un sepulcral silencio [...] y parece llevarse un recuerdo de nuestra historia²³.

Eta idatzi ere, sentipen sakon horren eraginpean idatzi zuen lana, luma tintetan ez baina bihotzari zerion minean busti izan balu bezala. Estilo aberatsekoa zen bestalde, iruditsua eta adjektibatze ugarikoa, ongi erabili zuena Erdi Aroko jauregiaren oroitzapena haren erretratu biziena helarazteko irakurleari eta nafarrei oro har. Adimenak argitu eta bihotzak hunkitu nahi izan zituen, eta onar dai-teke ongi asmatu zuela bietan. Lana bera ez da luzea, baina ongi burutua dago eta marrazki ugariz hornitua. Hauek asko lagundu zuten irakurleari begietaratze-ko zein miresgarria izan zen eta zertara iritsia zen Nafarroaren historiako unerik gorenetakoko monumentu hura.

Liburuak kezka bizia ernarazi zuen gazteluaren egoeraz nahiz Iruñean nahiz Erriberri, baina ez ezer egiten hasteko adinakoa; horretara iristeko urte aunitz joanen ziren. Nolanahi ere, Monumentuen Batzordeak bere egin zuen Iturralde

20. (1885, 18).

21. "El panorama con el que se encontró la recién inaugurada CM (Comisión Monumentos históricos, alegía) de Navarra era deplorable. La labor que tenía ante sí desalentadora, debida a la infinidad de actuaciones a realizar y la escasa dotación de medios tanto humanos como monetarios con la que contaba. Y como es de suponer, el Patrimonio Arqueológico no fue, en estos primeros momentos, su interés primordial", M. C. Lavín Berdonces (1997, 406).

22. J. Iturralde y Suit (1870).

23. J. Iturralde y Suit (1870, 58).

hain bizitasun handiz azaldu zuen arazoa. Iturraldek berak urte aunitzetan jarraitu zuen Batzordean, eta behin eta berriro ahalegindu zen Arte Ederretako eta Historiako Akademien aurrean eta Nafarroako Diputazioarenean ez zitezen ahaztu Gazteluaz. Batzordeko Zuzendariorde (izatez Zuzendari) izendatua izan zelarik, berehala helarazi zion Batzordeak eskakizun bat Diputazioari honek eros zezan Jauregia, eta horretan laguntzeko harpidetza sortu zuen Batzordeko kideen artean. Dokumentua bera aski luzea da, eta estiloak, agian, Iturralderen eskua iradokitzen du. Honela hasten da:

Un hecho que representa una gran vergüenza para Navarra, se verifica actualmente en este país, en medio de la indiferencia general más triste aún que el hecho mismo; la destrucción del *Castillo Real de Olite*.

[...] Algo de lo que aquello fue, de lo que significa para el patriota navarro, para el historiador, para el arqueólogo y para el artista, se consignó hace más de 20 años en una Memoria publicada por esta Comisión de Monumentos y que se conserva en los Archivos de V. E.

[...], pero haremos notar nuevamente que desde la incorporación de Navarra a Castilla, víctima de las guerras extranjeras y civiles, y aún más del abandono y del olvido, parece ser representación exacta y fiel de nuestro desgraciado reino, y de como éste, aparece doblemente respetable con la augusta majestad de la desgracia.

Los individuos que componen esta Comisión, navarros ante todo, han pensado en iniciar, como particulares, una suscripción con objeto de recaudar los fondos suficientes para adquirir esas ruinas y después entregarlas á la Diputación...²⁴.

Esan bezala, luze iraun zuen Iturralderen partaidetzak Batzordean eta haren ekimena eta izan zuen eragina ere handiak izan ziren. Erromatarren eta Nafarroako Erresumako garaietako aurkitzen ziren monetak altxatu eta ikertu, monasterioetako dokumentu eta liburu sakabanatuak errekuperatu, eraikuntza monumentalak zaindu eta berrizatzeko ahaleginak egin, udalak eta parrokiak eta horietako erantzuleak premiatu gai horien inguruan, gizartean historiako ondusunen esanahia eta haien gorde-beharrak eta estimua ernatu eta hedatu, eta Nafarroaren historiarekin zerikusirik izan zezakeen zernahiz arduratu. Boletina ere, bera Batzordearen zuzendaritzara iritsi zenean sortu zen. Eta haren aurreneko zenbakiko lehen artikulua bere eskukoa da: "Puerta del Convento de Templarios de Puente la Reina"²⁵.

Denek onartzen zuten haren ahalmena bultzatzaile bezala eta haren gaitasuna bere kabuz hainbeste lan egiteko. Bada non hauta horiei buruzko aipamenik, baina honako honek haren alderdi nagusiak esku-sortatxo batean biltzen ditu:

(...) fue durante más de 40 años alma y vida de la Comisión de Monumentos de Navarra, donde desempeñó todos los cargos, desarrolló actividades prodigiosas, apor-

24. "Castillo Real de Olite", "Principales acuerdos y comunicaciones de la Comisión, correspondientes a los meses de Diciembre de 1894 y Enero corriente" atalean, *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra* 1. alea, (1895, 8-9 eta 10. or.).

25. J. Iturralde y Suit (1895).

tó descubrimientos, trazó planes prácticos, realizó concienzudos y variadísimos estudios; descifró enigmas...²⁶.

Dena den, oraino beste alderdi nagusi bat gelditzen da ez daitekeena gogoratu gabe utz: protohistoriako arkeologiari egin zion ekarria. Ez zen garai hartan ardua gehiegirik historiaurreko aztarnen inguruan, behar bada uste zelako Nafarroan ez zela horrelako lekukotasun askorik. Frantzia aldean aurreratuagoak zebiltzan horrelako aztarnak bilatzen eta ikertzen, eta ez gutxi Pirinio bestaldean. Horren eraginez eta Historiako Errege Akademia ere kezkatzen eta zirikatzen hasia zelako, Nafarroako Monumentuen Batzordekoek lehen irteera egitea erabaki zuten 1887ko udaberrian:

Ante esta insistencia (Historiako Akademiarena), se despertó el antiguo interés, y como queda reflejado en las Actas, en la sesión del 17 de Mayo, se decide hacer una expedición a Labiano, donde deben encontrarse hachas de piedra, así como al pozo del oro en Errazu y las cuevas de Zugarramurdi, en donde hay posibilidad de encontrar algún monumento protohistórico. Este es el germen del primer catálogo megalítico de Navarra que será uno de los principales focos de atención de Juan Iturralde y Suit, uno de los miembros de la Comisión que más se dedicó a la Arqueología, cuya labor será continuada, ya en el siglo XX, por Aranzadi, Ansoleaga, Barandiarán, Eguen, López Sellés y otros muchos investigadores...²⁷.

Iturralde buru-belarri sartu zen esparru honetan. Bazuen kezka edo ulertezinen bat monumentu megalitikoen faltaz Nafarroan, Araban, aldiz, aurkitu zirelarik. Kezka horren isla Batzordeak Historiako Errege Akademiari 1887ko apirilean bidali zion gutunean ere agertzen da²⁸. Iturraldek bere aurkikuntzak eta haien azterketak ezagutzera emateko txosten bat prestatu zuen aipatu Akademiari bidaltzeko, baina etxean gelditu zitzaion bidali gabe, osatu nahi izaneren zuelako beharbada ala, segurkiago, Bartzelonara joan beharra izan zuelako. Txostena burutua dago eta 1894ko azaroaren 29an sinatua, non arreta handiz aurkikuntza horien berri ematen duen, akuarelez eta marrazkiz ilustratuz monumentuen informazioa²⁹. Honela amaitzen du txostena:


26. J. Altadill (1915, 1000).

27. A. C. Lavín Berdonces (1997, 411-412).


28. "No debe, sin embargo, ocultar que espera poco de sus investigaciones, si ha de juzgar por la escasez de esos antiquísimos restos que hasta el presente se han encontrado en este país [...]. Ninguno de éstos ("monumentu megalitikoez" ari da) se ha encontrado en estas comarcas y los más próximos, que son los dólmenes de Eguilaz y otros de la Llanada de Alava, parecen indicar que aquel fue el límite...". A. C. Lavín Berdonces (1997, 411).


29. Ikus: Iturralde y Suit (1911-1). Txostena, anexo bezalako batekin, Historiako Errege Akademiako Zuzendariari zuzendua zegoen, eta familiak, aita zendu ondoren, Nafarroako Monumentuen Batzordearen esku utzi zuen hari helarazi ziezaion, Julio Altadill idazkariak eta Florencio de Ansoleaga lehendakariordeak sinatuz bidalketa gutuna. Gutun hori horrela hasten zen: "La familia del que fué nuestro dignísimo Vicepresidente, D. Juan Iturralde y Suit (e. p. d.), ha hallado entre los apuntes y estudios de dicho señor la Memoria adjunta que, con las once acuarelas unidas á la misma, la completan. El conjunto constituye una descripción de los dólmenes y el menhir hallados é investigados por aquel sabio infatigable en la sierra de Aralar", Iturralde y Suit (1911-1, 197).

Txosten hori Nafarroako Monumentuen Batzordearen Boletinean ere argitaratu zen: "Monumentos megalíticos de Navarra" izenarekin, ikus: Iturralde y Suit (1911-2).



Erriberriko Errege-Jauregia berregin ahal izan zen berak jasotako informazioari esker.





E. Zubirik egindako erretratu hau Iruñeko Udalaren Agiritegian dago.

Resumiendo: he reconocido siete dólmenes completos; tres arruinados y adquirido noticias de otros tres: en junto trece, esperando encontrar otros aún³⁰.

Iturraldeken zuen ulertezina galdera kezkarri bihurtu zitzaion. Eta berak azaltzen du nola izan zuen Nafarroako mendizerra batean –Aralarren– ziren dolmen batzuen berri, eta nola abiatu zen harat haiek ezagutzera:

En efecto [...], ¿cómo explicar la existencia de algunos dólmenes en Alava y su falta en Navarra, siendo esta tierra el camino probable que para llegar allí debieron seguir aquellos pueblos en alguna de sus invasiones? [...] La solución de este problema, doblemente interesante para los que hemos nacido en el corazón de Vasconia, me ocupaba hace tiempo, sin que mis pobres investigaciones y las noticias que procuraba adquirir acerca de ello dieran resultado positivo alguno. Felizmente, un querido y antiguo amigo, el respetable y bondadoso profesor de instrucción D. Francisco Huarte, á quien me complazco en enviar el testimonio de mi gratitud, me habló, poco ha, de la existencia de ciertos dólmenes en una de nuestras sierras, visitada por él hace años; en vista de sus noticias, encamineme a aquella comarca y emprendí mis exploraciones con la reserva consiguiente. Acompañado de un pastor de la localidad, navarro de raza, conocedor como ninguno de la lengua éuskara, de los menores accidentes de aquellas montañas y de sus nombres peculiares, recorrí trabajosamente...³¹.

Horrela hasi bide zuen Iturraldeken historia aurreko arkeologiaren ikerketa eta hauxe izan daiteke haren ekarrikerik pertsonalena. Aitzindaria izan zen eta, denbora gutxiren buruan, ikertzaile ospetsuak eta, agian, bera baino jantziagoak ere hark irekitako bidetik abiatu ziren. Bere txosten horretan agertzen dira zehatz-mehatz, hizkuntza-estilorik atseginean, egin zituen aurkikuntzak eta haien azalpenak, iritziak eta burutapenak, ibili zituen baso eta mendiak, izan zuen laguntza eta xehetasun pertsonalagoak ere.

7. LITERATOA

Denboraren iraganean, literato bezala lortu du Iturraldeken izenik handiena, edo hedatuena gizartean, nolabait esateko. Literaturak horixe du bere alde, oihartzun eta arrakasta handiagoak izaten dituela, oro har, gizartean beste aktibitate aunitzek baino. Iturralderen kasuan ez dago zertan erkatzen ibili egin zituen lanen artean ez eta eman zituen emaitzenetan, denetan bera osorik azaltzen baita. Eta hizkuntzaren erabilera arina, jariotsua, adierazkorra eta aberatsa ere bere edozein lanetan azaltzen da dirdaitsu, nola historia edo arkeologiakoe-tan, nola gizartearekikoetan, nola, zer esanik ez, literatura egitean. Irudi du ez zuela bereizketa nabariagirik egiten, gaien edo eremuen arabera, hizkuntzaren erabileran. Beretzat hizkuntzak komunikaziorako tresna huts zirudien, berdintsu zaintzen zuena nahiz era bateko lanetan nahiz bestekoetan.

30. J. Iturralde y Suit (1911-2, 152).

31. J. Iturralde y Suit (1911-2, 147).

Halere, ezin uka literatoa izan zenik hitz honen zentzurik arrunt eta onartue-
nean. Aski da bere edozein ipuin edo elezaharretan begiak ezartzea sentimen-
duz betetako idazle batekin harremanetan jartzeko. Hain zuzen ere, haren litera-
tur lana, narratibaren eremuan, kontaketa laburrera mugatu zen nagusiki. Baina
aski izan zuen ospe eta entzute handia erdiesteko mundu horretan. Hainbat
ipuin, elezahar eta ahozko herri-literaturan jasotako kontakizun idatzi zituen.
Behar bada egin daiteke haren lanen sailkapen zehatzagorik, batez ere edukia-
ren mamia ala haien balizko helburua ala beste edozein irizpide erabiliz, eta egin
ere egin dira, baina horrek literatur mundutik kanpora eramango gintuzke. Itu-
rralderen kasuan, esan bezala, aski litzateke zein espirituk eragiten dion litera-
tura hori idaztean. Bere seme-alabei utzi zien bilduman erabili zituen hitzak
benetan esanguratsuak dira alderdi hori agertarazteko:

Quiero, por fin, dejaros este recuerdo como se deja un retrato, indiferente para los
extraños y casi siempre desprovisto de valor, pero que aviva el recuerdo de la perso-
na amada, á quien al mirarlo creemos estar viendo y oyendo. Sean, pues, estas líne-
as retrato, trasunto, en parte, de mi alma, y recuerdo de las leyendas y cuentos que
cuando niños me oísteis contar; principalmente lo que os dije de Dios, de la familia y
de nuestra Patria, esos cultos de mi alma que espero guardaréis también en la vues-
tra mientras hacéis este tristísimo viaje de la vida³².

Jainkoa, familia, aberria: horra haren bizitzako hiru zutabeak, lehenengo biak
berari eusten ziotenak; hirugarrena, berak hari bizitza eskaini ziona. Eta horiek
dira eta horien inguruko balioak dira haren sorkuntza eta haren luma batik bat
gidatu zituztenak. Gehien nabaritzen dena, ordea, hirugarrena da, bere herriaren
maitasunarena, alegia, gainez egiten duen aparra bezala darielako haren konta-
keta aunitzi. Berdin da historiako gertakizunetan inspiratu, nola, esaterako, Kar-
lomagnoren gudarostearen suntsipena eta Erroldanen heriotza aitzakitizat har-
tuz, “La batalla de los muertos” titulatzen den kontaketa erakargarrian; ala berak
asmaturiko edozein ipuin izan, “El ruiseñor de Errota-zuri” adibidez; ala elezaha-
rretan oinarritu, nola “Salkindaria. El traidor”, “Los perros de Martin Abade” eta
beste aunitz.


Arturo Campi3n zen Iturralderen ekoizpen literarioa hobekien ezagutzeko
aukera izan zuena, haren eskuizkribuak miatu eta ordenan jarri baitzituen eta
bolumen batean argitaratu zituen berak hitzaurrea idatziz³³. Lan horretan egin
zuen ipuinen eta kontaketen sailkapen bat, eta horren gainean besterik ere egin
izan da³⁴, baina hemen ez dago bereizketa horietan gelditu beharrik. Aski da jaki-

32. A. Campi3n (1912, CXXXI) liburutik jasoa eta Campi3nek berak jarraian horrela komentatzen
du: “En el libro centellea la triple corona del pensamiento de Iturralde y vibra el triple amor de su cora-
z3n. Se retrata moralmente; porque lo que indica la dedicatoria era Iturralde, y algo m3s, omitido sin
duda porque en su tabla de valores no lo estimaba de igual importancia: un artista”.

33. Iturralderen lanak argitaratu ziren lau aleetatik, lehenengoan eta hirugarrenean batzen dira
literatur lanak. Campi3nek berak lehenengoari egin zion ez ohiko hitzaurrean, berrehun eta lau orrial-
detakoa baita, Iturralderen bizitza, irudia eta lan idatziak azaltzen dira. Harrez gero, ez dago Iturral-
deri buruz ezer idazterik hitzaurre bikain horretara jo gabe.

34. C. Mata Indurain (1997).

tea zernahi gerta ziezaiokeela sorburu, ez baitzuen kezkatzen sorkuntzaren berritasun osoak, ez eta kontakizunen, kritiken, deskribapen hutsen, irakats-asmoen eta horrelakoen arteko bereizketek. “Las voces del viento en los Pirineos navarros”, “La selva. Aguiriko Eliza”, “La campana de Nájera”, “El castillo de Tiebas”, “La leyenda de San Virila de Leyre”, “El puente de Miluce” eta hainbat dira historiarekin nola edo hala lotuak, eta beti Nafarroa eta Euskal Herriarekin. “La paciencia y la limosna”, “Las lágrimas de la tribulación”, euren irakaspen moralarekin. “La ínsula de las Penélpidas. (Cuento que no lo parece)”, izenburuak garbi agertzen du ipuintzat duela Europako aurrerapenen kritikazko idatzi hori, eta berdin beste hau: “Del por qué los franceses cuando se ocupan de las cosas de España carecen de sentido común. (Cuento)”, eta hasi ere horrela hasten da: “Allá, por los tiempos de Mari-Castaña parece que...”. Egia esan, bere artista-senak literatur emaitza bihurtzen zuen edozein gai, eta bere espirituak ezartzen zion ia beti helbururen bat literatur sorkuntzarenaz gain.



Zendu ondoren egin zen bere lan literarioen argitalpena.

Luma errazeko idazlea zen gainera, eta hori literatur lanetan baino ia argiago nabaritzen da bere artikulua arruntetan, hala monumentuei buruzkoetan, nola Nafarroaren, euskararen, politikako edo gizarteko edozein arazoren ingurukoetan. Aisetasunez iristen zitzaion irakurleari haren hizkuntzaren erabilera arteza eta halaber aberatsa. Adibide onak dira, zer esanik ez, haren lanetarik aipatuen den Erriberriko gazteluaz idatzi zuena edo Iratxe, La Oliva eta Irantzuko monasterioez idatzitakoak, baina baita “La lengua bascongada”, “La libertad verdadera”, “La política foral de Cataluña”, “Un congreso de protestantes en Pamplona”, “La caza en Navarra” eta hainbeste.

Edonola ere, ezin zuen ekidin, ezta lan teknikoetan ere, bere sentsibilitate estetikoa. Paisaiaren edertasunak edo monumentuen esanahiak inarosten zioten barnea, eta bihotz-begiekin jasotako inpresioa irudiz, konparaketez, kolorez eta bizitasunez jaxten zuen. Begira, adibide baterako, honako ataltxo hauek Historiako Akademiarako prestatu zuen txostenetik jasoak:

Emprendimos, pues, nuestra marcha rápidamente; pero antes de dirigirnos hacia los valles, quisimos aprovechar las horas que quedaban de día para ver otro dolmen

[...]. Efectivamente, sobre la elevada cumbre llamada *Lupertia*, desde la cual se descubriría un sublime panorama formado por negros precipicios, verdes laderas, peñascales tajados y desordenados cual si los hubiera sacudido un terremoto, y bosques sombríos que lucían los más ricos matices, desde el negro azulado hasta el verde esmeralda, al amarillo y al carmín encendido, y tras de los cuales una línea de montañas de caprichosas formas y cubiertas de nieve elevaba hasta el cielo sus excelsos y plateados picos³⁵.

Sobre el vértice del ángulo que divide esas dos vertientes aparece el robusto tronco de un añoso roble, de unos setenta centímetros de diámetro [...]. Sus raíces, extendiéndose pintorescamente, se retuercen como sierpes que luchan iracundas: se abren camino entre las grietas de las peñas, han arrancado sillares que sostienen en el aire formando nudos en derredor suyo y rodeándolos apretadamente; se elevan, bajan y entrelazan como las serpientes del grupo de Laocoonte, y describen curvas, ángulos agudos y espirales sin tocar á tierra³⁶.

Nork uka liezaieke testu hauei literariotasuna? Benetan Laocoonte eta bere semeen eskultura taldearen aipamenak eta hain apropos ekarrirako sugeen irudi kiribilduak egilearen sentsibilitatea erretratatzan dute egokiro. Dena den, narrazio literarioetara itzuliz, testu horiek utzi diguten inpresio bera egiaztatu eta indartu baizik ez dute egiten. Haietan paisaia idealizatua nabaritzen da, neurri batean garaiko erromantizismoaren eragina izanen zuen horrek, baina, Iturralderen kasuan, bere herriarekiko jaiera sakona nagusitzen zitzaiolako gertatzen zen hori. Hala ere, literatura egitean, elaborazio landuagoa ikusten da, sormenean eta deskribapenen indarrean ez ezik, hizkuntzak eskaintzen zizkion aukera ezberdinak baliatzeko trebezia handian ere. *La batalla de los muertos* ipuinean, ia elkarren jarraian eta testuinguru berean datozen bi ataltxo hauek esan dudaren adierazgarriak izan daitezke:

Oíase el siseo continuado de las hojas de los árboles que las brisas hacían temblar y arremolinaban y arrastraban por el suelo como en las tristes tardes del Otoño, el crujir de las ramas de los robles gigantescos, de las enhiestas hayas y de los erguidos pinabetes, y rumores pavorosos y extraños que surgían de las misteriosas profundidades de las selvas [...].

Repentinamente brilló un lívido fulgor en el espacio, y un estrépito inmenso hizo retemblar aquellos montes y repercutió en sus concavidades, repetido mil veces por los ecos. [...] luego intervalos de fatídico silencio que interrumpían gritos guerreros, ladridos furiosos, agudos relinchos, exclamaciones confusas de sorpresa y asombro, y destacándose sobre todo ello, dominándolo todo, vibrante, apasionado y tranquilo a la vez, pero potente, irresistible, el *alayua* de las tribus bascónicas, su formidable grito de guerra!...³⁷.

Ez dago hemen gehiago luzatzerik Iturralderen alderdi hau, baduen arren nondik harildu. Agian, ez da oraino egin haren lan literarioak merezi duen lan osoago bat.

35. J. Iturralde y Suit (1911-2, 205).

36. (1911-2, 206-207).

37. "La batalla de los muertos" (1912, 20-23).

8. LABURPEN GISA

Ikusi den bezala, Juan Iturralde y Suit pertsona polifazetikoa izan zen, baina esan daiteke euskararen eta Nafarroaren eta Euskal Herriaren kezka eta ardura bizi zuten bere garaiko jenderik kultuenak –Pablo Illarregui, Florencio Ansoleaga, Estanislao Aranzadi, Nicasio Landa, Esteban Obanos, Arturo Campión eta beste zenbait– bildu zituela bere inguruan eta haiekin batera egitasmo garrantzitsu eta eraginkorrak aurrera eraman zituela. Ekintzak pasa ziren eta Elkargoa ere desagertu zen, baina haien eragina ez zen deusean galdu, alderantziz baizik, bide bat seinalatu eta ireki zuten garbiro, eta bide horretatik abiatuz sortuko ziren Euskal Herriaren izatea, historia eta nortasuna aldarrikatu eta errebindikatuko zuten pertsonak eta mugimenduak. Bere azken urteetan goibel xamar ibili bazen ere, Iturralde ez zuen sekula etsi ez ideiatan ez eta ideialetan, eta itxaropen hori beti gorde zuen bihotzean.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ADEMA, G. (1909) "Oeuvres du Chanoine Adéma, VII – Chants patriotiques". In: *RIEV* III. Bilbao; 396-400. or.
- ALTADILL, Julio. (1915) *Navarra, Geografía General del País Vasco-Navarro*, V. alea. Barcelona.
- ARZAC, Antonio. (1996) "Itz bi. D. Juan Iturralde eta Suit Jaunári". In: *Revista Euskara*, V, 288 or.
- AXULAR. (1643) *Güero bi partetan partitua eta berecia*, G. Milanges Erregueren Imprimaçaillea baitha, Bordelen. Euskaltzaindiak 1988an egindako edizio faksimiletik aipatzen da.
- Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, (1895 eta 1910-1936). Pamplona.
- CAMPIÓN, Arturo. (1912) "Prólogo". In: ITURRALDE Y SUIT (1912-1916), 1. alea, *Cuentos, leyendas y descripciones euskaras*, V-CLXCII. or.
- CHAHO, Agustin. (1836) *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris, 1836.
- ECHEGARAY, Carmelo. (1916) "Prólogo". In: ITURRALDE Y SUIT (1912-1916), 3. alea, *Tradiciones y leyendas navarras*, I-CCIV or.
- GAZTELU, R. Marqués de Echeandia. (1885) "La traslación de los cuerpos de los últimos Reyes de Navarra de Lescaur á Pamplona, y la "Bóveda Real" ó "Enterramiento" de la Santa Iglesia Catedral de Pamplona". In: *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, 1. alea, Pamplona; 18. or.
- IDOATE, F. (1971) "Un intento frustrado de Universidad vasco-navarra en 1866", *Letras de Deusto* 1. Bilbao: Universidad de Deusto; 29-45. or.
- ITURRALDE Y SUIT, Juan: 1870, *Memoria sobre las ruinas del Palacio Real de Olite*, Imprenta La Internacional, Pamplona. Berrargitaratua: 2006an *Palacio Real de Olite*, Gobierno de Navarra, Pamplona.
- 1895, "Puerta del Convento de Templarios de Puente la Reina". In: *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, 1. alea, Pamplona; 4-7 or.

- 1911-1, "Monumentos megalíticos de Navarra". In *Boletín de la Real Academia de la Historia* 58. alea; 197-215. or.
 - 1911-2, "Monumentos megalíticos de Navarra". In *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, 5. alea. Pamplona: Imprenta Provincial a cargo de J. Ezquerro; 147-154 eta 205-211. or.
 - 1912-1916, *Obras de D. Juan Iturralde y Suit*. Pamplona: Imprenta y Librería de Juan García, Pamplona, 4 ale. Ale bakoitzaren izenburua: I - *Cuentos, leyendas y descripciones euskaras*, A. Campiónen sarreraz (1912); II- *La Prehistoria de Navarra* (1911); III- *Tradiciones y leyendas navarras*, Carmelo Echegarayren sarreraz (1916); eta IV- *Las grandes ruinas monásticas de Navarra* (1916).
- JIMENO JURÍO, José María (1985) "Nafarroako historiografiaz - Historia de Navarra", *Euskal Herria-Historia eta gizartea - Historia y sociedad*, J. Intxausti Zuz., Lankide Aurrekia. Donostia: Jakin; 216-227. or.
- LABEAGA MENDIOLA, Juan Cruz (1984), "Hallazgos monetarios en Sangüesa. Navarra". In: *Cuadernos de Sección, Prehistoria* 2. Donostia: Eusko Ikaskuntza; 221-244. or.
- LAVÍN BERDONCES, Ana Carmen (1997) "La labor arqueológica de la Comisión de Monumentos de Navarra". In: *Príncipe de Viana* 211. alea, 403-444. or.
- MAÑÉ Y FLAQUER, Juan (1978) *El Oasis. Viaje al País de los Fueros*, Imprenta de Jaime Jeps Roviralta, Barcelona (3 ale). Nafarroari eskainitakoa 1. alea da.
- MARTÍNEZ BELOQUI, M^a Sagrario (1984) "Las relaciones entre la Diputación Navarra y las provincias vascongadas en 1866", *Noveno Congreso de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza, Bilbao, 463-465 or.
- MATA INDURAIN, Carlos (1997) "Panorama del cuento literario navarro en el siglo XIX". In: *Príncipe de Viana*, 210 alea, urtarrila-apirila, 223-247; 229-230. or.
- REVISTA EUSKARA 1996 (1878-1883) Edizio Faksimila, Sarrera eta edizioa, Lola Valverde, Donostia: Eusko Ikaskuntza, (6 ale).

Rosa M. Pagola